



Manifestua

Euskal Konpromisoa Munduko Bake Zuzen baten alde

Nazio Batuen Nazioarteko Bake Eguna

Sudan, Yemen, Myanmar. Kongo, Etiopia, Sahel, Nigeria, Somalia, Siria, Afganistan, Sahara, Armenia, Ukraina, Gaza... Gerrak edo gerra-erasoak sufritzen ari diren hamalau lurralde. Badira beste batzuk, baina horietan dira egoera larrienak nazioarteko begiraleen arabera.

Mende laurdena dugu 2025 honetan eta irailak 21 ditu gaur, Nazio Batuek Bakearen Nazioarteko Egun izendatua. Berrito ahotsa altxa beharrean gara munduko bakearen alde eta aipatutako lurralde horietako bakoitzean bakea izan dadin. Bakea, argi eta garbi. Bakea ez da gauza abstraktua. Ekintzetan gauzatzen da. Funtsezkoa da "gerrari ez" eta "bakeari bai" esatea, hori asko da, ez aski, ordea. Mami eta ekintza zehatzez jantzi beharra dago.

- Herrialde bat alde bakarrez eta gerra-baliabideak erabiliz inbaditzea, aurrez probokaziorik izan ez delarik, Ukrainan Putinek agindu bezala, milaka eta milaka biktima errugabe eraginez, azpiegiturak txikituz, ospitaleak, eskolak, etxeak, eta milaka haur bahituz, hori inperialismo hutsa da, izan daitekeen bidegabekeriarik handiena, eta gizalege ezera eta basakeriara eramaten ditu nazioarteko harremanak. Europar Batasunaren oinarri eta balioei zuzenean erasotzen die eta kinka larrian jartzen du Europaren segurtasuna.
- Populazio zibilaren aurkako ekintza terrorista alde bakarrekoak, Hamasek egindakoak bezalakoak, 24 ordutan 1.200 biktima errugabe eragin zituenak, bakearen eta giza eskubideen aurkako atentatu guztiz onartezina, eta zeharo gaitzetsi beharrekoa aitzakia izpirik gabe.
- Gazan hesitutako biztanleria bereizketa gabe bonbardatzea, 70.000 biktima baino gehiago eragitea, gehienak emakumeak eta haurrak, giza laguntza sartzen ez uztea, gosea, egarria eta azpiegitura zibil eta osasunekoak suntsitzea, ekintza kriminalak dira, Netanyahu aginduak eta genozidioaren adierazpena bat direnak. Halaber, ez da onartzekoa Zisjordanian finkatzeko politika, indarrez gauzatuak eta legez kontrakoak.
- Elkarriketari eta irtenbide diplomatiko eta negoziatuei uko egitea eta interesen arabera erabiltzea, boikota egitea edo indarra lehenestera makurraraztea, bakearen etsai izatea da.
- Bakearen aldeko konpromisoak diplomaziaren alde egitea eskatzen du eta gerra baliabideen erabilerari uko egitea, Nazio Batuen erabakiez eta nazioarteko zuzenbideaz kanpokoak dira eta.
- Bakearen aldeko konpromisoak populazio zibila babestea eskatzen du eta giza laguntza zalantzarik gabe lehenestea, edozein gatazkatan gutxieneko betebeharra.



- Bakearen aldeko konpromisoak eskatzen du nazioartearen bitartekaritzarekin elkarriketa eta negoziaketa prozesuak sustatu eta garatzea, bakea bilatzeko egiazko borondatearen adierazleak.
- Bakearen aldeko konpromisoak eskatzen du multilateralismoa eta honen erakundeak onartzea, geureganatzea eta defenditzea, herrien arteko zatiketak eta gatazkak erabakitzeko esparrutzat hartuz.
- Bake, bizikidetzeta eta demokraziaren aldeko konpromisoak eskatzen du Herriek elkar errespetatzea eta onartzea, izateko eskubidea eta bakoitzak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea aitortzea.

Gazako eta Ukrainako egoerei jartzen diegu arreta gaur aurrea. Europarrak gara eta interpelatu egiten gaituzte. Desberdinak dira bata eta bestea, baina badituzte alderdi komunak. Bi lekuetan oso eraso larriak egiten ari dira biztanleria zibilaren aurka, inbasio saio bat gertatzen ari da eta nazioarteko zuzenbidea urratzen. Gainera, sarraskiak Gazan aurrekaririk gabeko garbiketaren eta giza tragediaren ezaugarriak ditu, benetako genozidio bihurtuz.

Munduan bakearen, giza eskubideen eta justiziaren alde garrasi egiten duten pertsona, elkarte eta erakundeen ahotsekin batzen dira gure ahotsak. Hitz ematen dugu, basakeria bukatzen ez den artean, honako exigentzia hauei eutsiko diegula:

- Netanyahuren Gobernuari exijitzen diogu amaitzeko berehala Palestinako sarraskia. Exijitzen dugu Gazan ziurtatu dadila biztanleriak giza laguntza era duin eta seguruan eskuratu ahal izatea. Hamasi exijitzen diogu askatzeko bahitu guztiak.
- Errusiari exijitzen diogu amaitzeko inbasioa eta edozein gerra-eraso Ukrainako lurrian. Putinen Gobernuari exijitzen diogu nazioarteko zuzenbidea bete eta giza eskubideak errespetatu ditzala.
- Europar Batasunari eta Nazio Batuei presatzen diegu neurri irmoak erabaki ditzaten sarraski hauek geldiarazteko, eta nazioarteko bitartekaritza eragin dezatela irtenbide negoziatuak bilatzeko.

Euskadin memoria kritikoa sakontzeko konpromisoa hartzen dugu gerra, terrorismo, indarkeria eta giza eskubideen urraketen bidegabekeriaz jabetu gaitezen. Giza eskubideak unibertsalak direla defenditu eta bake kultura eragiteko konpromisoa hartzen dugu. Eta agintzen dugu justizia, bizikidetzeta eta gerra-erasoen biktima guztiekiko elkartasunaren alde egingo dugula.

Donostia, 2025eko irailaren 21a